

## 1. FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Gure enpresa aurrera joan dadin behar dugun enpresa garrantzitsuena garraiokoa da. Hau Genei-en bidez egingo dugu. Enpresa hau bidalketak egiteaz arduratzen da, hainbat garraio-enpresekin akordioak baititu (Correos, DHL, TNT, UPS...). Honetarako, enpresa modura erregistratuko gara plataforma honetan, eta horrela, gure enpresak bidalketa asko egin beharko dituenek, deskontuak lortuko ditugu hauek gauzatzerakoan. Horrez gain, beste akordio bat lortuko dugu haiekin gure erabiltzaileek deskontuak eduki ditzaten, eta adostuko dugun erradio batera daudenean debalde bidaltzeko aukera eduki dezaten. Hau lortzeko, gure irabazien zati bat eskainiko diegu.

Honetaz gain, gaur egun hain famatuak eta hainbeste arrakasta duten “influencer”-ekin kolaborazioak egingo ditugu. Izan ere, “influencer” bakoitza, enpresa txiki baten modura egiten dute lan eta haien arrakastari esker jende askori zabalduko diote gure enpresaren berri. “Influencer”-ekin lan egiteko, haiei bidaliko diegu gustuko duten arropa edo haiek bidaliko dute beraiek saldu nahi duten arropa, hau da, gure enpresa erabiltzea nahi dugu.

Bukatzeko, beharrezkoa dugun azkenengo erakundea Gurutze Gorria da. Gurutze gorriak zailtasun ekonomikoak dituzten familiei arropa bidaltzeaz arduratzen da. Jendeak arropen dohaintza egiten du, erabiltzen ez duten arropa eskainiz. Guk nahi duguna da saldu ezin ditugun gauzak (egoera ia perfektuan ez daudelako) Gurutze Gorriari bidaltzea (dohainik). Espainia mailan lan egiten dutenez, hau da, Espainian ematen diren arropak espainiar jendeari emango dizkietenez, kutsadura murriztu dezakegu, hegazkina erabiltzea saihesten dugulako. Beraz, Gurutze Gorriaren bitartez, soberan dugun arropari bigarren bizitza emateko aukera ziurtatu dezakegu.

Gure enpresak bost bazkide izango ditu, haietako bakoitzak ekarpen ezberdin bat ekarriko dio gure enpresari. Kapital ekarpena guztion artean egingo dugu. Batzuek lan teknologikoz arduratuko dira: webgunea diseinatu adibidez, beste batzuk ordea bezeroekin harremanetan jartzeaz arduratuko dira.

Gure enpresan saltzeak hainbat abantaila hemango dizkio kontu bat sortzen duenari. Alde batetik, guk haiekin izango dugun tratua oso gertukoa izango denez, konfiantza handia hemango diegu. Gainera, haien informazio pertsonala oso ondo gordeta izango dugu; beraz, guztiz konfidentziala izango da. Guzti hau kontuan hartuta eta saltzea oso erraza izango denez, jende askok erabiliko du gure plataforma. Honek konfiantza hemango die hornitzaileei eta horrela beraien zerbitzuak lortuko ditugu.